

## Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko maiatzaren 24an egindako tailerraren akta



Manuel Fernandez (Nagusilan) • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Floren Gutierrez • Koldobike Olabide • Arantza Arizmendi (zinegotzia) • Jose Luis Cid • Isa Sanz • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Mari Cruz Lizarazu • Roberto Alonso • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Javier Iraeta (zinegotzia) • Pilar Makibar • Ana Mari Azurmendi • Kepa Retolaza • Juan Carlos Agirre • Igor Urrate (zinegotzia) • Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Zuen iritziak, hausnartzeak eta eraiki duzuen eztabaida benetan interesgarriak izan direlako, **eskerrik asko!** Gure motxilan ideia piloa sartu dugu eta horietaz hausnartu beharko dugu; horrezaz gain, eman ditzakegun urratsak ere sartu ditugu.... Opari ederra! Eskerrik asko!

### 1. Gaurko galdera: Nola murriztu dezakegu sortzen dugun zaborra?

- Gure eguneroko bizitzan, gutako bakoitzak, non sortzen dugu hondakin gehien? Eta non egin dezakegu zer edo zer hondakin horiek murrizteko?
- Eta Legazpin? Udalerrri gisa, gure ustez non murriztu dezakegu sortzen den zaborra?

Horiexek izan dira gaurko tailerrean egin ditugun galderak. Galdera errazak eta erantzuteko zailak; ur sakonetan murgiltzen garelako, hala nola, norberaren eta guztion erantzukizunean, baloreetan, etika,.... gai zirrargarria!

## 2. Inspiratzen gaituzten hausnarketak

Galderak erantzun aurretik, tartetxo bat hartu dugu pentsatzeko eta hausnartzeko: banan-banan eta taldean. Laguntza ere jaso dugu:

- **National Geographic** erakundearen bideoa ikusi dugu; bideoak, gure bizimoduak planetan eta beste komunitateetan duen eragina aztertu eta islatzen du oso modu grafikoan.

Bideoa ondoko loturan ikus daiteke:

[http://www.youtube.com/watch?feature=player\\_embedded&v=9DMUT9LOtD0#](http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=9DMUT9LOtD0#)

- **Joxan Auzmendik** ere hitz egin digu eta Foroarekin partekatu ditu hainbat kontu eta pentsamendu.

Mila esker, Joxan!!! Eskerrik asko errealitateaz konturatzen lagundu diguzulako, guk ere gure erantzukizuna dugula argi eta garbi azaldu duzulako!




### Hausnarketarako ideiak...

- Nolakoak dira egunero jasotzen ditugun publizitate-kanpainak? Zeintzuk dira kanpaina horietan bultzatzen diren baloreak?  
Horietako askok kontsumoa sustatzen dute, "edukitzea" bilatzen dute eta ez "izatea", gastatzea... iraunkortasunarekin bat datozen bestelako baloreen aurrean.
- Zeintzuk dira gaur egungo xahutzeko kulturaren ezaugarriak?  
"Erabili eta bota", gutxi irauten duten produktuak, haiek ez berrerabiltzea, asko eta asko ezin dira birziklatu edo oso zaila da birziklatzea, gure eraginkortasunik eza baliabideak erabiltzean, epe motzean etekin handiak lortzea helburu duen ekonomia, edukitzeak garrantzi handiagoa du izateak baino, ....; horiek dira ezaugarrietako batzuk. Kontu horiek guztiek, zer esaten digute?
- Gaur egun Gipuzkoako gizartean nagusi diren baloreen artean kontsumismoa, erosotasuna eta lehiakortasuna, eta azkeneko baloreen artean konpromisoa, etika,... egoteak, zer adierazten digu? Zer esan nahi du horrek?
- Planetako biztanle bakoitzak Euskadiko biztanle batek adina kontsumituko balu, guztira 2 planeta eta erdi beharko lirateke. Eta gaur gu hemen bizi garen moduan bizi bagara, planetako beste pertsona eta komunitate askok gutxiagorekin bizi direlako da eta, bestetik, etorkizuneko belaunaldien baliabideak gastatzen ari garelako. Bidezkoa al da hori? Etikoa al da hori?
- Garapen iraunkorra izan daiteke arazo hori konpontzeko bidea. Baliabideak zuzen eta egoki banatuko direla bermatzea da helburua, geure buruari mugak jartzea planetak dituen mugak onartuz,.... Prest al gaude horretarako? Zer nolako aldaketak ekarriko lituzke horrek gaur egun daramagun bizimoduan?

Taldeko kideek Joxanek egindako hausnarketari ekarpen desberdinak egin nahi izan dizkiote. Eta guztiok elkarrekin debate sakona, serioa... eraiki dugu, 4 ordu ere iraun zitekeena!

## Taldeko kideen ekarpenak, elkarrizketa eta debatea aberastu dutenak:

- Gure kontsumoa murriztu, sortzen ditugun hondakinak murriztu,.. zertaz ari gara? iraganera itzultzeaz? Errealista al da hori?
  - Zer esan nahi du “iraganera itzultzea”? Eta zer esan nahi du “pausu bat aurrera ematea”? Ongi aztertu beharreko kontua da hori eta norberak hori nola ulertzen duen ikusi beharko litzateke”
  - “Nik uste dut atzera egin behar dugula gizarte honek galdu dituen balore batzuk berreskuratzeko; hori egin eta gero, inguruarekin, planetarekin eta gizakiarekin begirunetsuagoa izango den bizimodua eraiki ahal izango dugu.”
  - “Jarduteko modu iraunkoragoaren adibide bat ekodiseinua da. Horrek esan nahi du ingurumen-irizpideak hartu behar direla kontuan –baliabide gutxiago erabiltzea, birziklatzea,...– produktuan diseinatzean.”  
“Hori egia da baina gure enpresetan mugak daude ekodiseinuak egiteko orduan: produktu bat diseinatzeke gaitasuna duten enpresek egin dezakete bakarrik. Bezeroak zehaztutako edo planoetan ezarritako ezaugarriekin lan egiten dutenek ez dute aukera hori.”
  - Gaur egun kontsumitzen ditugun gauzetatik asko gutziak dira eta horiek gure desioak asetzeko dira, ez gure beharrak. Benetan zorientasuna ematen al digu horrek? Baztertu al ditzakegu horiek?
  - “Erosotasunak eragin handia du kontsumitzeko gure jokabidean, hondakinen sorreran....”.
  - “Oso inportantea da errealitateaz eta horrek dakarrenaz jabetzea; eta hori da abiapuntua, hortik aurrera bakoitza norberaren erantzukizunetik eta erantzukizun kolektibotik, jardun ahal izango du”.
  - “Askok hazkunde iraunkorari buruz hitz egiten jarraitzen badute ere, nire ustez etorkizuna gutxitze iraunkorretik etorriko da. Begien bistakoa da ezin dugula kontsumo-maila hauekin jarraitu, ezin dugula horrenbeste hondakin sortu,..... eta behar beharrezkoa da bestelako bideak zabaltzea: enplegu berdea, kontsumo arduratsua,....”.
  - “Gainera, naturak berak erakusten digu baliabideak modu eraginkorrean nola erabil daitezkeen eta ekosistema gisa nola funtzionatu daitezkeen. Eta natura imitatu besterik ez dugu egin behar”.
- “Egia da, baina kontuan izanda giza izaera oso desberdina dela: harrapakariak gara, sua asmatu genuen,....”



Idea interesgarriak sentsibilizazio-maila handia erakusten duen talde honek bota dituenak..



## Ideiak, proposamenak:

- Ontzi handietan edo berriz betetzekoetan datozen produktuak erostea –adibidez, garbigarriak,...-.
- Gelak erabili ordez xaboi-pastillak erabiltzea –gehiago irauten dute eta ontziaren plastikoa saihesten dugu-.
- Pixa-oihal berrerabilgarriak erabiltzea.
- Jokabide eraginkorrak eta ekologikoak erabiltzea.
- Ahal dela, eta baratza baldin badaukat, nire landareak kontsumitzea.
- Garaian garaiko produktuak eta bertakoak erostea, garraioan eragin gabe.
- Ahal dela, saltzaileari edo dendariari eragozpenak sortzea berari ontziak eta bilgarriak utziz; bera “presionatzeko” modua da eta berak, era berean, fabrikatzailea “presiona” dezala lortu nahi da.
- Egunkariak ordenagailuan irakurtzea.
- Xaboa etxean egitea, erabilitako olioia eta soda kaustikoa erabiliz. Alde batetik ez dut erosten eta, bestetik, hondakina birziklatzen dut.
- Berriak erosi aurretik, tresna elektrikoak eta elektronikoak konpontzen saiatu.
- Norbere burua gutxiagorekin ere bizi daitekeela egiaztatzea eta konbentzitzea.

Eta Legazpin? Udalerrigisa, gure ustez non murriztu dezakegu sortzen den zaborra? Ze proposamen bururatzen zaizkigu?

- Esne freskoa emango duen makina bat jar dadila bultzatzea; horrekin herriko abeltzaintza bultzatzen dugu eta ontzien erabilera murrizten dugu –plastikoa, tetrabrik,...-.
- Kanean publizitatea murriztea –kartelak,...-.
- Txakurren gorotzei buruz dauden arauak betearaztea; Legazpiko kaleak oraindik oso zikin daude.
- Zerbait egitea parkeetan, plazetan,... litxarrerien poltsak desager daitezela lortzeko. Sarritan gurasoena da erantzukizuna!
- Herriko dendekin batera lan egitea:
  - Ogia, adibidez, bilgarririk gabe eman dadin.
  - Arrandegietan, harategietan,... jakiontziak erabil daitezela bultzatzeko, modu horretan, biltzeko papera saihestuz.
- Trukerako eta bigarren eskuko azokak antolatzea.
- Norberak konpost egitea eta bizilagunen artean konpost egitea bultzatzea eta horretarako erraztasunak ematea.
- Etxean, eta baita ostalaritzan ere, iturriko ura edan dadila bultzatzea. Are gehiago, posible izango litzateke Barrendiolako ura kristalezko botiletan ontziratzea eta merkaturatzea?
- Oihalezko poltsak, poltsa berrerabilgarriak edo erosketetarako orgak erabil daitezela bultzatzea.
- Zenbait produktuk behar ez duten bilgarria daramate eta horiek zigortu egin daitezke –gainkostu bat ezarri-.
- Herri-bazkarietan ontzi berrerabilgarrien erabilera bultzatzea.
- Haurtzaindegietan pixa-oihal berrerabilgarrien erabilera bultzatzea.

Denbora gutxi izan badugu ere, asko izan dira bota diren ideiak! Eta gainera, horietako asko oso errazak dira, berehala martxan jartzeko modukoak eta planeta hobetuz laguntzen has gaitzke jadanik.... **oso ondo egin duzue! Lan bikaina!**

## . Azken oharrak

Tailerrari amaiera emateko, Inmak **5 ohar** garrantzitsu eman ditu:

- Dagoeneko argitaratu da Legazpiko herri barruko autobus publikoaren zerbitzua kontratatzeko Agiria.  
Orain, proposamenak aurkeztu nahi dituzten enpresek epe bat dute eskaintzak aurkezteko eta, ondoren, Udalak jasotako proposamenak aztertuko ditu eta erabaki bat hartuko du. Aurreikusitako epeak betetzen badira, zerbitzua irailaren inguruan jarri ahal izango da martxan.
- Ekainean, eta ekainaren 5a, Ingurumenaren munduko eguna ospatzeko, Legazpin **2012ko Aste Berdea** ospatuko da. Aurtengorako prestatu den ekintza-programan honakoak sartzen dira:

- ekainaren 1etik 18ra: “Merkataritza berdea Legazpin” kanpaina.

Ekainaren 1etik 18ra, produktu berdeetan prestakuntza jaso duten Legazpiko dendek kanpaina berritzailea eta erakargarria jarriko dute martxan, legazpiarrei ingurumenean eragin gutxiago duten euren produktuen eskaintza ezagutzera emateko.



- ekainaren 22an: “Ingurumenari on egin olioia birziklatuz” ekintza.  
Sasieta mankomunitatearen eskutik, mago bat arituko da kalean olioaren birziklapena bultzatzen.
- ekainaren bukaeran: arrainarentzako ontzien erabilera bultzatzeko kanpaina: “Igo zaitez gure ontzira”  
Ekogune-Kutzak bultzatuta eta Sasieta mankomunitatearen eta herriko arrandegien parte hartzearekin, jakiontzia banatuko dira arraina erosten plastikozko poltsen eta bilgarrien erabilera murriztu dadin.
- ekainaren 4an eta 11n: “Gorde bilgarria, aldatu edukia!” ekintza.  
Haztegi ikastolaren eta Domingo Agirre eskolaren ateetan bi aktore azalduko dira eta askaria biltzeko material berrerabilgarria erabiliz zabor gutxiago sor dezakegula azalduko diete ikasleei. Era berean, askari osasungarria egiteak duen garrantzia azpimarratuko dute.
- ekainaren 5ean: FOKATU UROLA GARAIA IX. argazki-lehiaketako sariak banatuko dira.  
Lehiaketara argazkiak aurkezteko epea maiatzaren 25ean bukatuko da. Aurtengo gaia hau da: “Elikadura jasangarria”.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- **Zumarragako eskualdeko ospitaleak** hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko Agenda 21eko Foroak egin dituen proposamenak aztertuko ditu. Horrela adierazi zien ospitaleko Ingurumen batzordeak, joan den maiatzaren 22ko bilerara Agenda 21eko Foroaren izenean hemendik joan ziren 3 pertsonei (Igor Urrate, Inma Hernandez eta Pilar Makibar).
- Legazpiko Udalak eta Sasieta mankomunitateak martxan jarriko dute laster asteroko azokan **hondakin guzti guztiak gaika biltzeko sistema**. Horrekin, aspaldi antzemandako beharrari erantzungo zaio.
- **Hondakinei dagokienez**, Udala beste ekintza batzuk ere lantzen ari da. Alde batetik taldean konpost egiteko sistema bat martxan jartzea aztertzen ari da. Horrekin, hondakin organikoek kudeaketari erantzun nahi zaio harik eta atez ateko sistema martxan jarriko den arte. Bestetik, herri-bazkarietan ontzi berrerabilgarriak erabiltzea bultzatuko da –edo norberak etxetik eramango du berea edo Udalak duena erabiliko da–. Azkenik, Sasieta mankomunitatearekin elkarlanean, elkarte gastronomikoetan hondakinak gaika jasotzea bultzatu eta erraztu nahi da. Horretarako, Mankomunitateak edukiontzi bereziak banatzeko asmoa dauka.

Eta arratsalde zoragarri honen berotasunarekin, agur esaten dugu gaurkoz! Gainera, bazkalosterako gaia daramagu...

**Atsegina izan da! Guztioi, eskerrik asko!!!**

Elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko gune hau izaten laguntzen duzuelako, mila esker!